

KAPITALISMO BERDEAREN
GEZURRAK

>06. ORR

NAIARA PUERTASI
ELKARRIZKETA, "AL
MENOS TIENES TRABAJO"
LIBURUAREN EGILEA

>20. ORR

INSUMISIÓN:
Y AL SARGENTO
LO TIRARON AL PILÓN...

>PÁG 34

La Furia

rapera feminista

**“El dolor ante
la injusticia lo
convierto en enfado;
y el enfado,
en canciones”**





24

ELKARRIZKETA

La Furia: “Si este mundo machista y fascista no nos indigna es que somos parte del problema”



34

ERREPORTAJEA

**Insumisión:
Y al sargento lo
tiraron al pilón**



14


ERREPORTAJEA

**U30eko grebak
dozenaka mila lagun
lantokitik kalera
atera zituen**

06

GAIA

**Luis González Reyes:
“Kapitalismo berdea
ezinezkoa izateaz gain,
ez da desiragarria”**



ALDAko ahotsa | Editoriala **03**

Arturo Puente **04**

Ezinezko Kapitalismo berdea..... **06**

ErALDATzen **12**

U-30ko greba orokorra irudietan **14**

Entrevista Naiara Puertas **20**

Entrevista La Furia **24**

Reportaje sobre la insumisión **34**

Morir en el tajo **42**

ALDAko irakurleak **45**

KulturALDA **46**

ALDAko Hiztegia: ¿Acuerdo

Interpro... no se qué? **47**

PostALDA **48**

ERREDAKZIO TALDEA

Zuzendaritza: Iván Giménez eta Nagore Uriarte.

Koordinazioa: Nerea Ispizua.

Lantaldea: Gorka Quevedo, Gabriel Zeberio, Lander Zabaleta, Davide Cabaleiro eta Bixen Fernández Amezaga.

Argazkiak: ALDA eta Foku.

Ilustrazioa: IratINK.

Argitaratze: ELA, Euskal Sindikatua. Barrainkua 13, Bilbao. 944 03 77 00.

www.ela.eus/alda • alda@ela.eus

Lege-gordailua: BI-425-2018

Ale kopurua: 102.600



Greba orokorra, politikaren erdigunean

Enpresak hustu eta kaleak betetzea zen urtarrilaren 30eko greba orokorraren helburua. Milaka lagun irten ziren kalera pentsio, lan baldintza eta bizitza duinak aldarrikatzeko. Bada, helburu hori bete zen. Bilbon 50.000tik gora lagunen aurrean (eguerdiko beste mobilizazioak batuta 145.000 pertsona bildu ziren guztira) ELAko idazkari nagusi Mitxel Lakuntzak esan zuen moduan, "greba orokorrarekin hautsi dugu isiltasuna, greba delako aktibazio sozialerako tresna kolektiborik egokiena".

Erasoa jo dugu; funtsean borroka bera diren borrokek bat egin zuten eta urtarrilaren 30ean guztiak kalean elkartu ziren: "Plaza eta auzoak okupatzen ez baditugu, azkenean eskuin muturrak hartzen baititu. Gure indarra kalean datza. Soilik kaletik eta mobilizatuz urratuko ditugu jendarte justuago batera eramango gaituzten bideak. Herri hau bizirik dago, eta jendeak mundu hobea eraiki nahi du".

Greba orokorrak mezu argia igorri zien EAEko eta Nafarroako gobernuetako buruei, Iñigo Urkullu eta Maria Chiviteri: "Jende xeheak arazoak ditu. Eta arazo horiek izena dute: pentsio kaxkarrak, prekaritatea, soldata arrakala, etxebizitza... Arazo horiek ezin dira agenda politikotik kanpo geratu.

Horretarako herri honi begira jarri behar dira, hemen gaudenoi entzun eta aldarrikapenak aintzat hartu. Beste politika bat, beste eredu sozial bat behar da. Baina horretarako, agintzen duenak ezin du jarraitu mundua ikusten soilik patronalaren betaurrekoak jarrita".

Lakuntzak nabarmendu zuenez, greba orokorra ez zen helmuga izan, abiapuntu baizik: "Bihar are indar handiagoz segituko dugu: pentsio publikoen alde, prekaritatea borrokatuz, enpresaz enpresa, sektorez sektore. Kalera ateratzen den jendea da herri honek duen hoberena", eta hau urtarrilaren 30ean berriro frogatu zen.

Oraingoz, greba orokorrak politikaren erdigunean kokatu ditu langile klasearen arazoak eta herri mugimendu guztien aldarriak (feministak, pentsiodunak, klima aldaketaren kontrakoak, gazteak...). "Borroka ezberdinak elikatzen eta hauspotzen segituko dugu, egin nahi ditugun aldaketak gauzatu arte".

Badaukagu jendea; bidea eta indarra ere bai.

Egunero lortzen ditugu garaipenak.

Urtarrilaren 30ekoa beste garaipen bat izan zen. **A**

Os recordamos que Landeia se ha reconvertido en una revista bimestral dirigida a la acción sindical que, en principio, está concebida para ser enviada a los delegados y delegadas. Si no lo eres y quieres seguir recibéndola en papel, solicítala en: ELA, Komunikazio bulegoa. Barrainkua 13, Bilbao o Landeia@ela.eus. Por otra parte, en nuestra web: www.ela.eus podrás descargarte la versión digital de ambas publicaciones, tanto ALDA como Landeia.



Arturo Puente, periodista

El despertar catalán del sueño de la independencia indolora

Junts per Catalunya eta Esquerraren artean sortu den jendaurreko liskarrari buruz gauza asko esan daitezke. Lehenengo eta behin, autonomiako boterearen bila lehiatzen direla esan daiteke; baina ezin da ahaztu gobernukideen arteko borroka horren atzean independentziari buruzko eztabaida estrategikoa ere badagoela.

Como si fuera una tradición navideña más -como hacer cagar el Tió o los canelones el día de Sant Esteve- durante los últimos años las redes sociales catalanas se llenaban de mensajes independentistas en Nochevieja. "Feliz 2014, el año que por fin seremos independientes"; podía leerse, y frases como "éste será el último cambio de año que veamos siendo españoles". Pero el pasado fin de año nadie escribió ya estos mensajes. Si ya muy pocos lo hicieron en la Nochevieja de 2018, al inicio de este 2020 era prácticamente imposible encontrar a alguien que escribiera alguna cosa semejante. Hay quien ha interpretado esto como un descenso del sentimiento independentista, pero es una lectura interesada y errónea.

"ESTO VA PARA LARGO"

Lo que hay en Catalunya ahora es un imaginario independentista diferente, fruto de una derrota, que ya no cree que la independencia sea sencilla e inminente y, sobre todo, que ha comenzado a digerir que un proyecto político así, para llevarse a cabo, tiene costes. Si el lema independentista en la fase de expansión del movimiento fue "tenemos prisa"; ahora, tras el desastre de la declaración unilateral de independencia, trata de consolidarse buscando vías alternativas al grito de "esto va para largo".

Este despertar repentino sobre que la independencia instantánea, indolora y caída del cielo no sucedería tiene la particularidad de que todo el mundo soberanista parece haberlo hecho a la vez. Y eso es precisamente lo que ha evitado que los ciudadanos exijan cuentas a los líderes que les condujeron hasta aquel callejón o que la frustración se apodere del movimiento hasta paralizarlo. Ninguna de las dos cosas han pasado o, al menos, no de forma general o extendida, aunque es cierto que las jornadas de disturbios en varias ciudades que siguieron a la durísima sentencia contra los líderes independentistas solo puede entenderse como una explosión de rabia social.

Haber aprendido esta lección es, de hecho, casi lo único que une ahora al conjunto de los líderes, partidos, entidades y bases independentistas. Si bien durante los últimos dos años el independentismo oficial, es decir, la alineación del mundo posconvergente, ERC, la CUP y las entidades Òmnium Cultural y ANC, han sabido capear el temporal ofreciendo un programa que tenía como línea general la restauración de la instituciones propias de la Generalitat y la lucha en el plano judicial contra los excesos cometidos por el Estado, esa fórmula da para poco más, y ya hace meses que dá muestra de necesitar un recambio urgente, al menos, al nivel de narrativa, pero seguramente también de liderazgos y, a medio plazo, seguro que también de proyecto político integral.

Katalunian orain gailendu den imaginario independentista lehengoa ez bezalako da, oraingoa porrot baten ondoriozkoa da, dagoeneko ez du inork uste independentzia erraza eta berehalakoa izango denik; eta, batez ere, hasi da onartzen horrelako proiektu politiko bat gauzatzeko kostuak dituela. Mugimenduaren hedapen fasean, lelo independentista "presa dugu" izan bazen, orain, aldebakarreko independentzia aldarrikapenaren hondamendiaren ondoren, "honek luze joko du" aldarria sendotzen ari da, ordezkoko bideak bilatzeko asmoz.

En este contexto, según se ha hecho obligatorio que cada actor explicase qué quería hacer y hacia dónde quería ir, es donde se ha desatado un discusión interna que ha hecho patente que el independentismo es ahora un movimiento fuertemente dividido. La forma en que el Govern se explica a sí mismo, eso que se ha dado en llamar "el relato", es, en sí misma, una lucha partidista donde el president Quim Torra trata de mantener encendida la última llama de la esperanza sobre una independencia cercana, algo que no se creen ni sus acólitos más fieles, mientras ERC trata de exhibir gestión socialdemócrata y acercarse a sectores de izquierda no independentista pues ha decidido convertirse en el partido que haga crecer a la masa soberanista y, de paso, colocarse en el centro del tablero político para no perder la oportunidad de gobernar, pase lo que pase.

Se pueden decir muchas cosas sobre la bronca pública que ha arreciado entre Junts per Catalunya y Esquerra. La primera es que es, sobre todo, una lucha por el poder autonómico. Pero no se puede minusvalorar que, como telón de fondo de esta pelea entre socios del Gobierno, también hay una discusión estratégica sobre la independencia.

Si bien ambas ramas del independentismo están de acuerdo en que la cosa va para largo y en que necesitan mayorías más amplias, mientras unos creen que solo podrán crecer impugnando al Estado y planteando una lucha frontal contra los partidos del consenso del 78, los otros consideran que es más útil tratar de condicionar el

Gobierno y, en general, la política española mediante el pacto y la negociación. Estos segundos, además, tienden a considerar que impugnar al Estado y pactar con él son prácticas compatibles. Los primeros, en cambio, no lo creen posible, y ven cualquier pacto como una renuncia que desarma más y más el movimiento en conjunto.

INDEPENDENTISMO DIVIDIDO

La existencia de estas dos interpretaciones en el independentismo catalán ha dado como resultado el bloque que facilitó la investidura de Sánchez, en el que estuvo ERC pero no JxCat ni la CUP. El líder del PSOE fue reelegido gracias a una coalición unida por unas coincidencias más que circunstanciales y cortoplacistas, y con unos intereses más que dispares.

Los republicanos dieron luz verde a Sánchez a cambio de una mesa de negociación entre gobiernos. La fórmula sirve a los de Oriol Junqueras para matar varios pájaros de un tiro. De entrada, para rebajar la beligerancia judicial, al menos la impulsada desde el Gobierno. También para ganarse una imagen más seductora ante diversos sectores, de izquierda no independentista pero también de orden y agentes económicos. Pero, sobre todo, consiguen desplazar el punto focal de la política catalana hacia el futuro, abriendo un camino alternativo a la independencia inmediata que vuelva a permitirles ahuyentar que

la sensación de fracaso secuestre a las bases soberanistas.

No menos importante que esto es que ERC tiene ahora la llave de las mayorías en el Congreso. Una posición que tiene intención de utilizar para condicionar la legislatura y estirar al PSOE hacia sus posiciones. Y pese a eso, en el partido son más bien pesimistas sobre las opciones de que puedan conseguir alguna cosa presentable para Catalunya.

JxCat, por su parte, espera que los pronósticos se cumplan y que la mesa entre gobiernos haga agua para deslegitimar a sus adversarios y erigirse como los defensores de la vía dura. El partido contará ahora con el activo de haber podido sentar en el Parlamento Europeo a Carles Puigdemont, casi lo único que recuerda que el conflicto con España sigue abierto.

ESPADAS EN ALTO

Pero lo más probable es que ninguno de los dos partidos tenga demasiado tiempo para desplegar sus estrategias. La confirmación de la inhabilitación de Torra por parte del Supremo se prevé para los próximos meses y, cuando eso pase, el adelanto electoral aparecerá como la única salida. Los socios del Govern volverán a verse las caras ante las urnas con una renovación obligatoria de liderazgos y proyectos.

Pero, sobre todo, unas nuevas elecciones marcarán si tras el despertar colectivo independentista el proyecto ha perdido fuerza y se ha desmovilizado o si, por el contrario, mantiene el pulso y es capaz de mejorar sus resultados. Y solo en el segundo caso, si el movimiento de base ha evolucionado al mismo tiempo que las circunstancias y no se ha desamorado de un proyecto que ahora entiende que tendrá costes, será posible que en algún año próximo alguien vuelva a tuitear sobre la última Nochevieja en la Comunidad Autónoma catalana. **A**



“Kapitalismo berdea ezinezkoa izateaz gain, ez da desiragarria”

Nola egin planetaren bizi-iraupenarekin bateragarria izango den sistema batetara jauzia? Ecologistas en Acción taldeko **Luis González Reyes** galdera horri erantzuten saiatu da berriki garatu duen ikerketa batean. Lan honen aurkezpenaren bezperatan ALDArekin gai honen inguruan luze eta zabal hausnartzeko parada hartu zuen Madrilen.

GORKA QUEVEDO

Klimaren krisi bete-betean gaude. Aldiro-aldiro errepikatzea komeni den gaia da, Lurraren etorkizuna kolokan baitago. Makina bat aldiz entzun izan ahal dugu planetaren tenperatura 1,5 gradu zentigradu igotzeak ekarriko litzukeela ondorio larriak. Ondorio horiek esparru ezberdinetatik aztertu litezke. Gizakion ohiko tenperatura (36,6-37 gradu bitartean) gradu eta erdi igoko balitz guztiok gaixorik geundeke, sukarrak jota.

2020. hasieran Australian izandako sute basatiak –Hungariaren adinako lur eremu bat kiskali da– ere klima aldaketarekin lotu litezke, horrelako gertakari bat posible egin duten bi faktore nagusiak –tenperatura altuak eta lehorteak– arazo honi lotuak daudelako.

Biodibertsitatearen galerak ere ondorio ezin larriagoak eragingo

ditu. Izaki bizidunen 6. galera handiaren aurrean gaude. Milaka eta milaka dira desagertzen ari diren izakiak, eta horrek ondorio oso larriak ditu gizakiontzat ere. Izaki ekomendekoak gara, naturaren zikloa gauzatu ahal izateko ezinbestekoak dira arrisku larrian dauden hainbat espezie. Erleak desagertuko balira, nork egingo luke polinizazioa?

Baina badago klima aldaketarekin lotutako beste faktore bat, sarri askotan arreata askorik jartzen ez zaiona eta urte gutxiren buruan

gu guztiongan izugarritzko eragina izango duena: enplegua eta gizarte eredua. Hori da, hain justu, Ecologistas en Acción elkarteko hainbat kidek ‘Escenarios de trabajo en la transición ecosocial 2020-2030’ proiektuan aztertu nahi izan dutena.

Luis González Reyes doktorea da kimikan, Ecologistas en Acción-eko kidea eta lan honen arduradunetako bat. Egungo sistema ekonomikoaren bideragarritasun eza salatzen ari da, eta alternatiba bat lantzearen



“Una de las cosas que nos plantea el ‘capitalismo verde’ es que las renovables van a ser sustitutos equivalentes a los combustibles fósiles, pero la realidad es que tienen menos prestaciones. Partiendo desde esta perspectiva de límites físicos no es posible que el capitalismo verde se mantenga”.

beharraz ere. Argi hitz egiten du, aho-bizarrik gabe. Ez daki nolakoa izango den etorkizuna, baina neurririk hartu ezean sistema kolapsatu egingo dela ohartarazten du, inork gutxik kalkulatu ditzakeen ondorioekin.

“Energia ugariaren garaiaren amaieran gaude. Ebidentziek argi uzten dute petrolio konbentzionalaren pikoa gainditu dugula; hau da, erazketa-tasa maximoa gainditu dugu, ekoizpen-tasaren beheraldian gaude. Gas naturalaren eta ikatzaren kasuetan, datozen urteetan sartuko gara egoera horretan. Amaitu da erregai fosil ugarien aroa. Egungo sistema ekonomiko globalizatuaren ardatzetako bat garraio sistema masiboa da, bai merkantziei, bai pertsoneri eta bai informazioari dagokionean. Eta garraio sistema hau petroliotik eratorritako materialetan oinarritzen da ia-ia bere osotasunean”.

“Honetarako ez dago alternatibarik. Baten batek esango du: ‘auto elektrikoa!’ Bada, ez. Egun munduan petroliotik eratorritako erregaiekin funtzionatzen duten 1.200 milioi kotxe daude. Ez dago auto elektrikora trantsizio hori egiteko adina baliabiderik, ez denboraren, ez materialen ezta beharrezkoa litzatekeen energiaren ikuspuntutik. Eta, gainera, badira elektrifikatu ezin diren ibilgailuak. Kamioi batek beharko lukeen bateria hain astuna da non ibiltzeko ezingo lukeen kargarako gaitasunik eduki. Eta gauzak garraiatzeko ez bada, zertarako nahi dugu kamioi bat?”.

Azken urteetan energiaren inguruko enpresa handi eta erakundeek diru ugari xahutzen ari dira energia berriztagarriekin lotutako proiektuetan. Honen atzean dagoen tranpa salatu nahi du Luis González Reyesek. “Zergatik dira erregai fosilak gure energia iturri nagusiak? Propietate fisiko eta kimiko

“Vivimos en las sociedades más desiguales que nunca hayan existido en la Tierra, no solo en cuanto al reparto de la riqueza sino también en cuanto al reparto de poder. Me cuesta entender que sea deseable la perpetuación de este sistema; tiene más sentido poder ver cómo hacemos para transitar hacia otras cosas”.

paregabeak dituztelako. Energia berriztagarriek ez duten dentsitate energetiko izugarria dute. Har dezagun petrolioaren kasua. Petrolioan inbertitzen den energia unitate bakoitzeko 17 sortzen dira. Energia berriztagarriek askoz gutxiago ematen dute. Eguzkiaren kasuan, adibidez, inbertitutako energia unitate bakoitzeko bi itzultzen ditu. Berriztagarrietan energia-itzultze tasa handiagoa ematen den kasuetan hauek finantzatzen dituzten energia fosilei lotuta daudelako da. Eguzkia, haizea edo mareak topera erabilita ere erregai fosilek ematen digutena baina energia askoz gutxiago lortuko dugu. Erregai fosilak energia berriztagarriengatik ordezkatu daitezkeela pentsatzea iruzurra egitea da”.

Onean edo txarrean egin beharreko trantsizioa

Sistemaren krisia saihestezina dela dio Ecologistas en Acción-eko kide honek. Gutxienez baldin eta ez badira lehenbailehen neurri zorrotzak hartzen. Baietzapen hau egiteko Barne Produktu Gordinaren eta energiaren kontsumoaren artean dagoen korrelazio ia lineala hartzen du argudio gisan. “Ez da posible ekonomiaren hazkundera, Barne Produktu Gordina haztea, materialen kontsumoa handitu gabe, berotegi-efektua sortzen duten energiaren kontsumoa handitu gabe. Askok hori planteatzen dute, baina ez dago inolako oinarri enpirikorik hori justifikatzeko. Barne Produktu Gordinak ekonomiaren hazkundera bat neurtzen du, eta hazkundera hori ez da sustengatzen oinarri material eta energetiko bati

lotuta ez badago. Eta ez edonolako energiari, erregai fosilei baizik, bere propietateek ez dutelako parekorik”.

“*Kapitalismoa berdea bezalako kontzeptuak ez dira bideragarriak. Kapitalismoaren oinarria kapitalaren erreproduktzioa da, eta hori ezin da erregai-fosilei lotutako sistema baten baitan ez bada. Eta hemen bada aipatu beharreko beste puntu bat. Kontua ez da kapitalismoa berdea deitzen duten hori ezinezkoa izatea, baizik eta ez dela desiragarria ere. Kapitalismoa Lurrarekin amaitzen duen sistema bat izateaz gain oso sistema bidegabea da. Inoizko gizarte bidegabeenean bizi gara”.*

Zer egin egoera hau iraultzeko?

Termodinamika ez da gizakiok negoziatu dezakegun kontu bat. Eskura izan ditzakegun materialak ez daude borondate politiko edo ekonomikoen esku. Badaude, edo ez daude. Kito. Eta Lurraren baliabideak agortzen hasi direnaren zantzuak nabarmenak dira. Horregatik Luis González Reyesek larrialdi-egoera neurriak hartu behar direla aipatzen du.

“Hartu beharreko neurriek lau ardatz nagusi dituzte. Lehena, gure kontsumo energetiko eta materialaren jaitsiera handia. Hari lotuta, bigarrenik, aberastasunaren birbanaketa oso garrantzitsua. Hirugarrenik, sistema berriztagarri baten aldeko birmoldaketa urgentea egin beharko litzateke, besteak beste klima aldaketaren ondorioak atzera ezin izan ez daitezela. Azkenik, biodibertsitatearen amaiera geratu beharra dago, gure biziraupena horren menpe dagoelako”.



Luis González Reyes.

“El movimiento ecologista tiene que asumir nuestro fracaso histórico en el sentido de que nuestro planteamiento de transiciones hacia sociedades de corte ecosocial más o menos ordenadas y, desde luego, a tiempo, mucho antes de que llegara esta situación tan aguda de crisis ambiental, no ha sucedido”.

“Oinarri horietatik abitatuta neurri politiko zehatzagoak xehatzen joan gintezke, plano ezberdinetan, Estatu, erkidego edo udal mailan. Baita alor pertsonalago batean ere, gizakiak eta familia edo komunitate baten kide garen neurrian. Aldaketa ez da argiaren etengailu automatiko bat bezala. Datozen hamarkadetan bizi-aldaketa moteletara ohitzen joango gara, eta nahiz eta normaltasun baten baitan bizi, ikuspuntu historiko batetik garrantzitsuak eta iraultzaileak izango dira”.

Aldaketa horiek lokalagoa eta landatarragoa izango den ekonomia batetara eramango gaituzte. “Honek politikaren eta parametro kulturalen lokalizazioa eragingo

du. Landa-ekonomiak hirien despopulazioa ekarriko luke, eta baita hiriak nekazaritza, batez ere, eta abere produkzio espazioak bihurtzea. Mota honetako transformazioak sailhestezinak dira, abiadura handiagoan edo txikiagoan izan. Aldaketa hau modu antolatuta batean egiteko beharrezkoa da gizartearen mobilizazioa, herritar sareak eta auto-antolakuntza garatzea. Baina noski, horretaz gain instituzioen inplikazioa ezinbestekoa da, larrialdi egoera batean gaudela ikusi behar dute, egoerak eskatzen duen adinako erantzuna eman ahal izateko”.

“Hau lortzeko autonomia ezinbestekoa da. Estatuek

kapitalarekiko eta finantzekiko autonomia garatzen joan behar dute. Hau lortzeko modurik eraginkorrena ekonomia nazioarteko-fluxuetatik deskonektatzea da, materialei zein kapitalari dagokionean”.

Prest gaude egoera berri batetara egokitzeko?

Ecologistas en Acción talde ekologistako ordezkariak gure bizitzetan eragina izango duen trantsizio bat planteatzen dute, pertsona zein kolektibo gisa. Gauzak honela, galdera begi-bistakoa da. Prest al gaude? Nola erantzungo du gizarteak? Luis González Reyes baikor da, zenbait esparrutatik zabaltzen den ikuspuntu katastrofistaren aurrean.

“Eskasia egoera bat gertatzen denean batek pentsatu dezake ‘salba bedi ahal duena’ egoera baten aurrean egon gintezkeela, eta aurretik egoera fratrizidak izan ditzakegula, gerra-zibil egoerak. Posiblea den eszenatoki bat litzateke, baina ez bakarra. 2011. urtean, ‘Arabiar udaberria’ lehertu zenean, bazegoen, noski, demokrazia eza salatzen eta bertako agintarien aurka protesta egiteko asmoa. Baina beste elementu garrantzitsu bat ere bazen: elikagaien prezioaren igoera zela-eta jende askok zailtasunak zituen jaki-tokia betetzeko. European asko harritu egin ziren jendearen erantzuna ikusirik. Ogia eskuan zutela ateratzen ziren kalera, demokrazia eta justizia aldarrikatzen zuten. Honek erakusten du muturreko egoeretan borroka fratrizidak edo justizia sozialaren aldeko borrokak sortu daitezkeela”.

“European bertan argi ikusi da 2007-2008 urte inguruetan ekonomiaren krisiaren aurrean eman diren bi jarrera nagusiak. Zonalde aberatsenetan, nagusiki,



alderdi edo mugimendu faxisten gorakada ikusi dugu. Hegoaldeko herrialdeetan, berriz, sortu ziren mugimenduek helburu emantzipatzaileagoa izan dute. Uste dut etorkizunean gizartegatazka handia biziko dugula. Dagoeneko ematen ari da, Europa osoan dagoen klima politiko eta soziala duela urte batzuk zegoena baina askoz amorratuagoa da”.

Sentsibilizazioa, gakoa

Ingurumenarekin jasagarria izango den gizarte batera jauzia modu ordenatu batean emateko borrokan mugimendu ekologistak onartu egin beharko luke porrot egin duela. Hala uste du Ecologistas en Acción-eko kide honek. “Trantsizioa garaiz egitearen helburua ez da lortu, ez behintzat ingurumenaren krisia horren larria izan aurretik. Aurrean izugarri boteretsua den makinaria bati aurre egin behar izan diogu: kapitalismoari. Eta kapitalismoa oso abila da bi esparrutan. Izugarria da irainario sozialak sortzeko duen gaitasuna, jendearen artean jasangarritasuna zalantzan jartzen duten desirak sortuz: bidaiatzeko gogoia, honako edo halako produktu hau kontsumitzeko asmoa...”

“Bestetik, abila dira enplegua xantaia gisan erabiltzen. Pertsona guztiok behar ditugu enpleguak, gutxieneko diru-sarrera batzuk izateko, oinarritzko ondasun eta zerbitzuetarako sarbidea izan ahal izateko. Eta hau erabiltzen dute jendea ez mugiarazteko. Askotan esaten dute: ‘enpresa honek X lanpostu sortuko ditu’, edo ‘enpresa hau ixten bada X lanpostu galduko dira’. Eta hori, kasu askotan gezur borobila izateaz gain, atzean egia den argudio bat badago: denok lanpostu bat behar dugu bizirauteko”.

“Honek ez du esan nahi ezer egin behar ez dugunik. Kapitalaren logikatik aterako diren prozesuak martxan jarri behar ditugu, eta hor

“Nos hemos enfrentado a una maquinaria como es el capitalismo que ha sido tremendamente poderosa en dos aspectos. Por una parte, creando todo tipo de imaginarios sociales y deseos como el viajar, que tiene mucho que ver con la sostenibilidad y, por otra parte, haciendo que la gente no se mueva, utilizando la herramienta del empleo, básicamente”.

komunitateek, kolektibitateek, gizarte mugimenduek eta sindikatuek zeresan handia dute. Kapitalaren kateetatik askatu behar gara, geure bizitzaren inguruan autonomia izateko. Gure elikadura edo kontsumitzen dugun energia merkatuaren logikatik atera beharra dago trantsizio ekonomiko hau bermatu nahi badugu. Eta honen inguruan asko aurreratu da. Honetan aurrera egiten dugun neurrian beste pentsamendu eta mundua ikusteko era batzuk izango ditugu, beste kultura balore batzuk. Gure kultura baloreek zerikusi handia dute mugitzen garen inguruarekin. Eta inguru hau kontsumista eta lehiakorra bada, kontsumistak eta lehiakorrak izango gara. Ordea, inguru solidario eta kooperatiboagoak eraikitzeke gai bagara, solidario eta kooperatiboagoak izango gara”.

Baikorrak izan behar dugu

Egoera ilun ikusteko zantzuak daudela aitortzen du Luis González Reyesek. Planetaren zati handi bat bere bizi-iraupenarekin bateragarria ez den kontsumo maila batzuetan dagoela aitortzen du, eta 2019ko abenduan Madrilen antolatu zen Klimaren Goi Gailurra bezalako ekimenek ez dutela ezertarako balio azpimarratzen du, bertan hartzen diren erabakiak eskasak izateaz gain ez direlako lotesleak.

Baina itzaropenerako mezua ere luzatu nahi du, argitasun zantzuak ikusten ditu. “Askorentzat Greta Thunberg ikono bat izan liteke, baina mugimendu ekologista askoz

haratago doa. Txile, Kenya edo Indiako ikasleen buruzagien diskurtsoak entzun besterik ez dago. Oso indartsuak dira, eta herrialde horietan egiten ari dena ezagutzeko balio du. Planeta osoan zehar ematen ari diren erazketaren aurkako borroka dira klima aldaketa eragoztearen alde gehien egiten ari direnak. Borroka horiek lortzen ari dira erregai fosilak lur-azpian geratzea edo basoa moztea suposatzen duten hainbat monolaborantza bertan behera uztea. Klase politikoaren eta ekonomikoaren gehiengoak gauzak orain arte bezala egitearen aldeko jarrera dauka, baina argi dago kontrako norabidean indarra egiten duen mugimendua gero eta indartsuagoa dela”.

Trantsizio ekologiko hau lortzeko bidean argi-ilunak ikusten ditu Espainiako gobernu berriari. “PSOE-Unidas Podemos akordioan elementu positibo bat dago. Gobernu berria, teoriarik behintzat, egoeraren larritasunaren jabe dugu, eta modu batean edo bestean bere egiten du komunitate zientifikoaren eta ekologikoaren diskurtsoa. Hortik aurrera, egiten duen planteamendua ez da zuzena. ‘Hazkunde berde’ baten alde egiten dute, energia berriztagarrien garapenaren eta hazkundearen alde eginez.



Baina, lehen aipatu bezala, eredu hau ez da posible ikuspuntu fisiko batetik, eta uste dut euren planteamenduan erratzen direla, ez dutelako errealitatea onartu nahi. Badakit errealitatea oso gordina dela, baina materia eta energia ezberdinen kontsumoaren beheraldia saihestezina da”.

“Hau esanda, uste dut, modu apalean bada ere, hainbat aktore politiko gauzak egiten ari direla bide egokiago baten. Bartzelonako Udalak aurkeztu duen ‘Larrialdi Klimatikorako Planak’, esaterako emisioen murrizketek hitz egiten duten neurriak jasotzen ditu. Adibidez, 1.000 kilometroko erradioan hegaldiak murriztea edo okela modu moderatuan zerbitzatzeko mintzo direnean, azken honek ingurumenean daukan azterna dela-eta. Espainiako gobernuak gisa honetako neurriak indarrean jarri ezean ez dira egongo benetan krisi ekologikoari aurre egiten”. ▲



Jornada laboral de 30 horas contra el cambio climático

Estamos ante una crisis ecosocial de consecuencias impredecibles. Por eso, es imprescindible hacer una transición hacia un sistema más sostenible de la manera más ordenada posible. Con el objetivo de analizar las consecuencias que esa transición tendría en el empleo, Ecologistas en Acción ha elaborado un informe llamado ‘Escenarios de trabajo en la transición ecosocial 2020-2030’. Luis González Reyes es uno de sus autores.

“Hemos previsto tres escenarios posibles. El primero sería seguir como hasta ahora, lo cual es inviable. Se requiere un consumo de energía que no vamos a tener disponible y aumentan las emisiones de gas invernadero de forma exacerbada”. Pero, ¿qué sucedería si siguiéramos por este camino? “El castañazo a nivel económico sería bastante grande y a corto plazo, al chocar contra los límites de disponibilidad energética y material de la Tierra”.

El segundo escenario analizado sería un New Green Deal o ‘Nuevo Pacto Verde’, que tampoco serviría para solucionar la crisis ecológica. “En esta hipótesis vemos una creación importante de puestos de trabajo en la próxima década, pero es un escenario que no considera que haya límites ambientales y energéticos en el planeta; hay una inversión muy fuerte en renovables o en reconversión de determinadas industrias. Habría más tiempo para mantener el actual estatus-quo de crecimiento, pero no mucho más. Después vendría un batacazo muy importante. Además, tampoco se salvaría el problema de las emisiones, porque un desarrollo tan brutal de las energías renovables trae detrás un consumo energético que hace que sigan aumentando las emisiones, llegando a niveles similares a los actuales”.

En opinión de Luis González Reyes, en esta coyuntura solo hay un escenario posible, el del decrecimiento. “Acoplándonos a esos límites materiales y energéticos se lograría una reducción sustancial y suficiente de los gases de efecto invernadero, responsables importantes del calentamiento global. En este escenario, al haber tardado tanto en ponerlo en marcha, no hay una posibilidad de ‘todos ganan’. Y si no tocamos todo lo referido al actual orden socio-económico habrá una importante destrucción neta de empleo”. Por lo tanto, esta situación requeriría incidir en el actual orden socio-económico. “Necesitamos desarrollar mecanismos de reparto del empleo, como la jornada laboral de 30 horas. En este escenario habría unos espacios en los se perderían empleos, y en otros se crearían, mediante espacios de trabajo que nos den autonomía alimentaria, energética o material, en forma de cooperativa u otro formato”.

Así mismo, este miembro de Ecologistas en Acción destaca la necesidad de hacer cambios sociales drásticos en el reparto de la riqueza. “En caso contrario habrá netos perdedores. Estamos en una situación en la que, como consecuencia de la crisis climática, va a haber una pérdida de empleo. Por lo tanto, o nos ponemos las pilas desde el punto de vista social o vamos a tener situaciones muy complicadas para la mayoría de la población. Por eso, es imprescindible adoptar fuertes mecanismos de distribución de la riqueza, como una Renta Básica de las Iguales, que tenga un componente individual pero también comunitario, o fiscalidades muchísimo más redistributivas que las actuales”. ▲

Otro mes más de huelga en las Residencias de Gipuzkoa



Las trabajadoras de las Residencias de Gipuzkoa han decidido continuar un mes más -hasta el próximo 8 de marzo- con la huelga que mantienen en defensa del convenio. El pasado 31 de enero cumplieron 200 jornadas de huelga en defensa de sus derechos y de la calidad del servicio que ofrecen a las usuarios y usuarias sin que, hasta el momento, la Diputación haya decidido asumir la responsabilidad que le corresponde y buscar una salida negociada al conflicto.

Las trabajadoras, que se encuentran fuertes y animadas a pesar del tiempo transcurrido, han mostrado su indignación y su rechazo hacia la

ELA continúa en solitario con la huelga en los polideportivos de Bizkaia

ELA continuó en solitario la convocatoria de huelga de 10 días en el sector de locales y campos deportivos de Bizkaia -del 20 al 26 de enero y del 4 al 6 de febrero- después de que LAB, UGT y CCOO decidieran aceptar la última oferta patronal.

ELA continúa en la lucha porque entiende que todavía hay margen para la negociación, y aunque la propuesta de la patronal contiene avances, seguiría habiendo salarios por debajo de los 1.200 euros. Tampoco se contemplan mejoras respecto a los contratos a tiempo parcial. Además, la patronal no da garantías que impidan la inaplicación de los contenidos firmados ni garantiza el mantenimiento del empleo de las plantillas en supuestos de rescate de contrataciones.

actuación de una patronal, financiada por la Diputación, que está tomando el pelo a las trabajadoras, a las miles de usuarias y usuarios y a los familiares de las y los residentes.

Las reivindicaciones de las trabajadoras son: recuperación del poder adquisitivo; que la contratación de las trabajadoras sea a tiempo completo; acabar con la brecha salarial de más de 6.000 euros que soportan

y mejorar la calidad asistencial de las personas dependientes.

Las trabajadoras han instado al Diputado General, Markel Olano, y a la Diputada de Bienestar Social a dejar de seguir siendo cómplices o rehenes de la patronal.

Convenio de empresa en Roxall que pone coto a la precariedad

Después de 24 días de huelga, la plantilla de Roxall, en Zamudio, logró su primer convenio de empresa, un acuerdo que sirve para dignificar las condiciones de trabajo y eliminar la precariedad.

Dicho convenio contempla cláusulas de ultraactividad indefinida y contra la inaplicación unilateral por parte de la empresa, dejando así fuera de efecto los principales riesgos derivados de las últimas reformas laborales.

Además, en cuanto a contenidos, se ha acordado una importante subida salarial (IPC+1.500 euros lineales para el 2020 e IPC+1.800 euros lineales para el 2021), reducción jornada de 17 horas en dos años, jornada regular al 100%, instauración de un plus de antigüedad y peligrosidad que hasta ahora no se cobraba, límites a la eventualidad y la utilización de contratación precaria (contratos becarios y prácticas), horario continuo en verano y librar los viernes por la tarde.

Asimismo, se han acordado nuevas tablas salariales para evitar dobles escalas para las futuras contrataciones y dejar atrás las del convenio estatal de químicas.



Luchando por el futuro de Batz-Araluce y sus 141 puestos de trabajo

Los trabajadores y trabajadoras de la empresa Batz-Araluce continúan luchando por el futuro de la empresa, que se encuentra en concurso, y de sus puestos de trabajo. ELA-Industria ha calificado de "barbaridad" la actuación empresarial y ha criticado el auto de la jueza del juzgado mercantil, que con la plantilla en huelga permitió el desmantelamiento de la empresa.

En opinión de ELA, hay culpables claros de la situación actual: la cooperativa Batz, que trata a quienes trabajan en Batz-Araluce como personal sin derechos; los auto denominados "liquidadores", contratados para cerrar la empresa; el administrador concursal, que no ha sido neutral; y la Diputación de Bizkaia y el Departamento de industria, facilitadores del cierre.

ELA seguirá luchando junto a los trabajadores por el futuro de Araluce hasta el final.

Osasun sailburu Nekane Murga bi hautaketa-prozesuren buru izan zen legez ezin bazuen ere

Eusko Jaurlaritzako oraingo Osasun sailburuak, Nekane Murgak, ebaluazio-batzordeko buru gisa parte hartu zuen bi hautaketa-prozesutan, Osasun Saileko bi burutza-postu hornitzeko salatzen du ELAk. Eta bere orduko kargua zela-eta, legez parte hartzerik ez bazuen ere, parte hartu zuen.

Indarrean dagoen legeriak eragotzi egiten du konfiantzazko kargudunek ebaluazio-batzordeetan parte hartzea, behar bezalako independentzia eta inpartzialtasuna ez dutelakoan. Kasu honetan, Murga sailburuak, jarduketa erabat irregularra eginez, batzordeburu jardun zuen; eta, beraz, hautagaien ebaluazioan eta lanpostu bakoitza nori esleitzeko erabakian parte hartu zuen.

ELAk behin eta berriz salatu du Osasun Saileko pertsonala (aldi baterakoak zein finkoak) hautatzeko eta kontratatze sistema osoa ustel dagoela. Azaldutako gertaerak ohikoak dira eta Osakidetza azken LEPea ere gertaturikoak, denen agerian geratu direnak, kultura eta praktika batzuen adibide baino ez dira.

Acuerdo en Elecnor de Gasteiz tras 38 días de huelga indefinida

Tras 38 días de huelga indefinida y otras cinco jornadas más anteriores, los trabajadores y trabajadoras de Elecnor, de Gasteiz, han llegado a un acuerdo con la dirección y han desconvocado la huelga que mantenían.

Entre otras mejoras, se han conseguido subidas de sueldo, reducir la temporalidad, mejorar la situación de los y las trabajadoras de oficinas, y acabar con la discriminación que sufría una persona en la plantilla desde hace 16 años. Con la vigencia del acuerdo habrá trabajadoras y trabajadores que verán su contrato temporal modificado a indefinido y con un aumento salarial de hasta 350 euros al mes. Además, se convertirán en indefinidos nueve contratos.

%24ko soldata-igoera Hondarribiko etxez etxeko laguntza-zerbitzuko langileentzat

Hondarribiko etxez-etxeko laguntza-zerbitzuan diharduten UTE Clece Zaintzen enpresako 22 langileek beren lehen hitzarmena lortu dute. Sindikatu nagusia den ELAk oso positibotzat jo du akordioa. Bestek beste, %24ko soldata-igoera, batez bestez, jaso baita, eta baita subrogazio-eskubidea ere. Lan erreformari aurre egiten dioten klausula guztiak ere sartu dira hitzarmen berri horretan: ultraaktibitatea, ez aplikatzea... Hitzarmena 2020ko apirilaren hasieratik 2023ko amaierara arte egongo da indarrean. Akordio hori sinatu ostean, bertan behera geratu da urtarrilaren 27, 28 eta 29rako aurreikusita zegoen greba.

ELAk, langileak euren borrokagatik zoriondu ondoren, akordio onak lortzeko mobilizazioen garrantzia azpimarratu du. 2019an mobilizazio ugari egin zituzten langileek herrian, eta joan den astean hiru eguneko greba deitu ostean iritsi da akordioa.



U30, GREBA OROKORRA

Lakuntza: “Jende xehearen arazoak agenda politikoan agertu behar dira”

U30eko grebak dozenaka mila lagun lantokitik kalera atera zituen

ALDA

Enpresak hustu eta kaleak bete. Hori zen urtarrilaren 30eko greba orokorra deitu zuten sindikatu eta eragile sozialen helburua, eta bete zen. Izan ere, Urtarrilaren 30eko greba orokorrak eragin zabala izan zuen Hego Euskal Herrian. Lanuztea oso handia izan zen Bizkaian eta Gipuzkoan, baita Arabako eta Nafarroako zenbait eskualdetan ere. Goizean goiz

esan zitekeen industrian greba oso handia zela, eta orduak igaro ahala egjatzatu zen hezkuntzak, zerbitzu publikoek oro har eta merkataritza sektoreko zati handi batek ere grebarekin bat egin zutela. Baina lanuztea handia izan bazen, are handiagoak izan ziren eguerdian eta arratsean EAEko eta Nafarroako hiriburuetan nahiz herri askotan deitutako mobilizazioak. Dozenaka mila lagunek kaleak hartu zituzten

“lan, pentsio eta bizitza duinak” eskatzeko. Mezu ozen eta argia zuzendu zieten EAEko, Nafarroako eta Espainiako gobernuei; hauek jendearen eskaria entzun egin beharko dute, nahi eta nahi ez, izan ere, ELAko idazkari nagusiak esan zuen legez, “gaurkoa ez da helmuga, abiapuntua baizik. Indartuta gaude, eta borroka ezberdinak elikatzen eta hauspotzen jarraituko dugu”.



U30, GREBA OROKORRA

Jendeak kalea hartu zuen

Ez zegoen eguerdian hiriburu eta herrietan deitutako mobilizazio ezberdinek izan zuten jarraipen izugarria ikusi besterik helburuak bete direla jabetzeko. Milaka eta milaka izan ziren pentsio, lan-baldintza eta bizitza duinak aldarrikatzeko kalera atera ziren pertsonak.

Mitxel Lakuntza ELAko idazkari nagusiak Bilboko manifestazioaren amaieran antolatu zen ekitaldian hartu zuen parte. Lakuntzak greba deialdi honek gizartean jaso zuen babes izugarria nabarmendu zuen, eta bertan parte hartzen ari ziren pertsona eta eragile guztiak aitortu nahi izan zituen. “Gure indarra kalean dago. Soilik kaletik eta mobilizatu irekiko ditugu gizarte justuago bat lortzeko behar ditugun aukerak. Hau esna dagoen herri bat, gizarte justuago baten protagonista izan nahi duen jendea duena. Grebalari guztiei eskerrak eman nahi dizkiet; noski, ahaztu gabe greba egin ezin duten horiei, pentsionisten mugimendua bezala. Borroka eredu bat dira”.

Lakuntzak mezu oso argia bidali nahi izan zien EAEko eta Nafarroako Gobernuen arduradun gorenei: Iñigo Urkullu eta Maria Chivite. “Jende arruntak bere arazoak ditu. Eta arazo horiek izena dute: nahikoak ez diren pentsioak, prekaritatea, soldata arrakala, etxebizitza... Arazo guzti horiek ezin dute agenda politikotik kanpo egon. Horretarako herri honi begiratu behar diote, hemen gaudenei entzun eta aldarrikapen ezberdinak aintzat hartu. Beste politika eta eredu soziala behar dugu. Bana jendeari soilik patronalaren betaurrekoekin begiratzen badiozu, gertatzen da gertatzen dena”. Idazkari nagusia ez zen ahaztu Espainiako gobernuaz. “Ez da nahikoa musikarekin, letra behar dugu. Ezinbestekoa da bertan behera uztea lan eta eta pentsio erreformak”.

Azkenik, azpimarratu nahi izan zuen grebaren arrakasta ez zela helmuga bat, abiapuntu bat baizik. “Bihar jarraituko dugu, baina indartsuago. Bihar pentsio publikoekin tematzen jarraituko dugu, prekaritatearen aurka borrokan, enpresaz enpresa, sektorez sektore. Gaur kalera atera den jendea herri honek duen onena da, eta gaur berriz ere erakutsi dute”. **A**



“Queríamos romper el silencio y lo hemos logrado. El silencio que existe sobre nuestros problemas, los de la gente corriente. Pasar a la ofensiva. Una nueva oportunidad de unir diferentes luchas que se han avivado los últimos años: la lucha feminista, la de las pensionistas, la del cambio climático o la lucha sindical en muchas empresas y sectores. Son todas una única lucha”.

“La huelga es política porque es social, sindical, feminista, antirracista, antifascista, ecologista... La huelga es todo eso y más, pero, sobre todo, la huelga es necesaria”.

“Nos han acusado de romper la unidad del movimiento de pensionistas. ¿Quién la rompe? ¿Los que hemos decidido continuar con las movilizaciones o los que han decidido parar, quedarse quietos? La unidad no puede tener como punto de encuentro la inacción”.

“La huelga nos da una oportunidad para colocar nuestras reivindicaciones, para poner nuestros problemas y las condiciones de vida en el centro. Nos da aire, ilusión y nos hace protagonistas a las y los miles de huelguistas que hoy tomamos las calles y plazas de Euskal Herria”.

“El Lehendakari no dice la verdad cuando afirma que su gobierno no puede hacer nada ante las reivindicaciones de esta huelga. Su gobierno puede complementar las pensiones, su gobierno puede mejorar las condiciones de miles de trabajadores y trabajadoras de la administración y de las cientos de subcontratas. Es el principal empleador del país. ¡Que no nos tomen el pelo! Pueden, pero no quieren”.

